

# HIZKUNTZA ASERTIBITATEA: *ni & besteak*



Euskara plazaratu,  
bizikidetzaz antolatzeko...



# HIZKUNTZA ASERTIBITATEAK

## Zer da?

Hasteko, asertibitatea elkarren arteko harremanak lasaitzeko **portaera bat da**.

**Molde orokorrean**, norberak bere burua afirmatzean oinarritzen da, besteak errespetatuz. Beste molde batez adierazita, mezu bat pasibitate eta agresibitate gabe pasarazteko gaitasuna da.

**Hizkuntzara ekarriz**, asertibitatea da hiztunak haren hizkuntza hautua plazaratzea, denen arteko errespetua eta bizikidetzara eraikitzeko asmoz. Hizkuntza asertibitateak 3 egoera saihestu nahi ditu:

- **Menpekotasuna**: “nirea ez den hizkuntza hautua onartzen dut, gehiengoaren onerako (eta indartsuena delako).”
- **Agresibitatea**: “nire hizkuntza hautua indarrez inposatzen saiatzen naiz (gehiengoan edo minorian izanik ere).”
- **Bazterrerazte**: “ez dut nire hautua errespetaraztea lortzen, beraz ahal dudalarik erabiliko dut eta besteetan ez.”

## Zer da jokoan?


- Euskara **lasaiki eta plazerarekin** partekatzea, estres, konplexu eta oztopo batzuk gaindituz.
- **Ardura partekatze** goxo bat, euskararen biziberritzea ez baita, soilik, euskal hiztunon ardura, baizik jendarte osoarena.
- Euskararen bitartez, gure **jendartearen bizikidetzara** antolatzea.
- **Inertziak** astindu eta **sormena** bultzatzea.



# Asertibitatea indartzeko 4 giltza

## 1. Nire burua prestatzen dut

- Fisiologikoki, nere emozioak hobeki kudeatzeko,
- Kognitiboki, nere kontzientzia eta hautuak indartzeko,
- Komunikatiboki, espontaneoki zer erantzun jakiteko.



## 2. Aurreiritzi batzuei klika ematen diet

Solaskideak gaitasunak ditu zein komunikazio mota nahi duen edo euskara ez duela ulertzen argi eta garbi adierazteko.

## 3. Pazientzia ukan.

Hastapenean deseroso izaiten ahal naiz. Euskara ahalik eta gehien mantenduz sorpresa onak aniztu baizik ezin ditut egin. Eta zein goxo eta motibagarriak diren! Errepikapenaren bidez, jokaera berri bat portaera automatiko bihurtzen da; beraz aitzina jarraiki!

## 4. Seinaleak interpretatzen ikasten dut.

Zergatik eta noiz uko egiten diot euskarari solaskide batekin?

	<ul style="list-style-type: none"><li>• “Lehen begi kolpean, itxuran fidatuz suposatzen dudalarik ez dela euskalduna” &gt;&gt;&gt; <b>Pertinentea al da?</b></li><li>• “Ez ulertzeko seinaleak nabaritzen ditudalarik”&gt;&gt;&gt; <b>Adi al zegoen?</b> Ba ote dakigu ez ote duen entzumen arazorik?</li><li>• “Zailtasunekin mintzatzen delarik” &gt;&gt;&gt; <b>Baliozko arrazoina da?</b></li></ul>
	<ul style="list-style-type: none"><li>• “‘Désolé, je ne parle pas basque’ / ‘Lo siento, no hablo euskera’ erraten didalarik”&gt;&gt;&gt; <b>Erran nahi ote du ez duela ulertzen?</b></li></ul>
	<ul style="list-style-type: none"><li>• “‘Je ne comprends rien’ / ‘No entiendo nada’ erraten didalarik”</li><li>• “‘Vous pouvez répéter en français svp / Por favor, repite en castellano’ erraten didalarik”</li></ul>

Gure arazoa da seinale guziak gorri ikusten ditugula. Alta, berde eta laranja den aldi guziz **euskaraz egin dezakegu.**

# 4 erantzun posible

Euskaraz egiten edo egin nahi dudalarik kritikak, deskalifikazioak edo erasoak jasotzen badituz:

## 1 Eraso ez dut itzultzen.

Isiltasuna da erantzunik onena. Euskara plazaratzeari indarra eman nahi diot beraz energia horretarako aurrezten dut. Ahal bezain ahalegin ttipienarekin eta ahalik eta kostu emozional ttipienarekin eraso neutralizatzen dut.

>>> **Erantzun labur eta hipotetikoak:** “agian”, “baliteke”, ...

## 2 Nire portaera ez dut justifikatzen.

Parekoa ez dut konbentzituko, nire ikuspuntua ez du bere egingo. Bere historia du, bere ibilbidea, mundua ikusteko bere moldea. “Zergatik euskaraz egin nahi duzu? Zergaitik ez?”

>>> **Disko marratua:** “ulertzen dut zure argumentua baina euskaraz segituko dut”, “ikusten dut... baina euskaraz segituko dut”, ...

## 3 Ardura espaldaz aldatzen dut.

Asaldatzen denak esplika dezala zergatik egiten duen eta zer duen nire hautuaren kontra. Berak justifika dezala zein den bere munduaren ikuskera.

>>> **Operazionalizazioa:** kritikako hitzei zehaztasunak galdegin “Baina zertarako balio du euskarak beraz zure ustez?” “Zer da zehazki balioa zuretzat?” “Baliagarria izaita egunerokoan” “Eta zer da zuretzat zehazki baliagarria izaita?”...

## 4 Absurdora jo dezaket, inoiz irri egin gabe.

Neutralizatzeko bide bat izan daiteke harridura sortzea egoera deseroso batetik fite ateratzeko.

>>> **Kritika indartzea :** “Zurekin arras ados naiz.” Eta kritika aitzin bezala segitu, euskaraz.

